

JARDUERA ➤ Metalen Aroa ezagutu nahi? [Klikatu hemen](#)

Metal Aroa K.a. 5.000 urte inguru hasi zen, **metalak naturatik erauzi** eta **objektu bihurtzeko** gai izan zenean. Lehenengo **kobrea**, gero **brontzea** eta azkenik, **burdina**. Metalak urtutzen zituzten tresnak egiteko. Horrela, gero eta arma hobeak eta metalezko beste objektu baliotsu batzuk egin ahal izan zituzten, adibidez **lanabesak**, **armak**, **erremintak**, **ontziak** eta **bitxiak** egiten zituzten.




Non bizi ziren?

Metal Aroko gizakiek **hiri txikiak** eraiki zituzten. Hauek **harrizko harresiz** inguraturik zeuden baliabideak eskuratzeko lehiaren ondorioz, gatazkak eta gerrak sortzen baitziren herrien artean. Hiritar **gehienak lastozko etxeetan** bizi baziren ere, **aberatsenak harrizko etxeak** zituzten, handiagoak eta erosoagoak.

Bizimodua Metalen Aroan

Hirien tamaina dela eta, bertan egin beharreko lanen eta ekintzen antolaketa bat egon behar zen eta horretarako **buruzagi (errege)** bat zegoen. Hiri hauetan lanbide berri batzuk sortu ziren:

- * **Errementariak:** Tresna eta arma berriak egiteko ardura zutenak.
- * **Urregileak:** Urrezko, zilarrezko, brontzeko edo kobrezko apaingarriak egiteko
- * **Merkatariak:** Hiriak eta haien produktuak jakinarazten zituztenak.
- * **Gerlariak:** Hiria babesteko eta borrokak ekiditeko.
- * **Apaizak**
- * **Artisauak**



Merkataritza eta garraioa

Leku guztietan metalik ez zegoenez, **herrien arteko trukeak** (aldaketak) egiten hasi ziren. **Materiala garraiatzeko bi modu** erabiltzen zituzten:

- ① Lurrez garraiatzeko, **idiz bultzatutako gurdiak** erabiltzen zituzten. Metalezko gorpila asmatu zuten.
- ② Ibaiez garraiatzeko, **kanoak** erabiltzen zituzten.



Modu honetan **merkataritza** eta **garraioak** sortu ziren.

Duela 5.000 urte, 3 asmakizun oso garrantzitsuak izan ziren:



1. **Gurpilari** esker garraioak hobetu ziren.
2. **Belaontziari** esker distantzia luzeko garraioak egiteko aukera.
3. **Goldeari** esker, lur gehiago eta arinago lantzeko aukera.

Monumentu megalitikoak

Gizakiek monumentuak egiteko **harri handiak** erabiltzen zituzten.



Iruinarriak:
Jaingo baten omenez
jartzen zituzten.



Trikuharriak:
Hilobi bezala erabiltzen
zituzten.



Harrespilak: Iruinarriz
osotutako harri pila.

Metal Aroa **gizakiak idazten ikastearekin batera** bukatu zen, K.a. 3500. urtean, gutxi gorabehera.